



EBAZPENA, 2008KO AZAROAREN 19KOA, OSASUN SAILBURUORDEARENA, HILDAKO EMAILEEN ORGANOAK ATERA ETA TRANSPLANTATZEAK SORTUTAKO GASTUAK TRAMITATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK EZARTZEN DITUENA

Organoak atera eta transplantatzeari buruzko urriaren 27ko 30/1979 Legea garatzen duen otsailaren 22ko 426/1980 Errege Dekretuak, bere 5. artikuluan ezartzen du, organoak emateagatik ezingo dela inolako konpentsaziorik jaso, eta ez dela emalearentzako inolako diru-kompentsaziorik egongo; horrez gain, hartzaileari ez zaio preziorik exijituko transplantatutako organoaren truke.

Bestalde, organoak atera eta transplantatzeari buruzko urriaren 27ko aipatutako 30/1979 Legeak, bere 2. artikuluan eskuarteak jarriko direla ezartzen du, prozedura horiek egitea hildakoaren familiarentzako nekeza izan ez dadin.

Organo-ematea dela-eta sortutako gastuen itzuleraren kudeaketa, Osasun Sailburuordetzaren menpe dauden Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzei dagokie, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Administrazio eta Araubide Ekonomikoko sailburuordearen 2001eko urriaren 15eko ebazpenak hildako emaileen organoak atera eta transplantatzeak sortutako gastuen tramitazioari buruzko jarraibideak ezartzen ditu. Ebazpen horren bitartez, halaber, itzultze horien kudeaketa Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legetik ondorioztatzen den antolaketa eta administrazio egoera berrira egokitu zen, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko egituretan kokatuz.

Ehorztetxeen sektorean indarrean dauden tarifetan aldaketak gertatu direnez, zenbatekoak egokitzeko asmoz, egokia da hildako emaileen organoak atera eta transplantatzeak sortutako gastuen tramitazioari buruzko jarraibide berriak ematea.

Horregatik guztiagatik, Osasun Sailburuordetza honek honako hau

EBATZI DU

Lehenengoa.- Xedea

Hildako emaileen organoak atera eta transplantatzeak sortutako gastuen tramitazioari buruzko jarraibideak onartzea.

Bigarrena.- Jasotzaileak

Jarraibide hauen jasotzaileak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzak izango dira.

Hirugarrena.- Indarraldia

Ebazpen honek, sinatzen den egunetik eragina izango du.

Laugarrena.- Ebatzi gabeko prozedurak


Jarraibide hauek, ebatzi gabe dauden itzultzeko prozedura guztietan aplikatu ahal izango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko azaroaren 19an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA


Sin. Rafael Cerdán Arandia
OSASUN SAILBURUORDEA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

HILDAKO EMAILEEN ORGANOAK ATERA ETA TRANSPLANTATZEAK SORTUTAKO GASTUEN TRAMITAZIOARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

1. Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzek, hildako emaileen organoak ateratzean sortutako gastuak itzultzeko espedienteak tramitatuko dituzte.

2. Gastu horiek, Lurralde Zuzendaritza bakoitzaren IV. kapituluan sartu beharko dira.

3. a. Honako hauek dira itzultzeak eragiten dituen gastuak:

Hilkutxa 481 €-ko (+ BEZ) gehienezko zenbatekoagatik.

Gorpua prestatzea.

Hileta-autoa eta lekualdaketa.

Agentziatua, lekuz aldatzeko espedientea, pertsonal eta agentziaren gastuak.

Sanitatea, osasun-ziurtagiriak eta ehorzketa edo errausketa.

Zergak eta aurrerakinak.

3. b. Honako kontzeptu hauek berariaz alde batera uzten dira:

Koroak.

Eskelak eta komunikatuak.

Hilobiak.

4. Administrazio-tramitazioa gastuen itzuleraren bidez egingo da, hobe dagokion ehorztetxera zuzenean ordainduz egiten bada, organoen erauzketa egin den Ospitaleko Zuzendaritzaren eginbidea erantsiz. Eginbide horretan, organo-ematea eta gorpuaren lekualdatzeak sortutako gastuei dagozkien fakturak ziurtatuko dira, bigarren jarraibidean adierazitakoaren arabera.

5. Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzek, jarraibide hauen edukiaren berri euren lurraldeko ospitaleei emango diete.